



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-09-10**

VIURTEA 1504.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Emakumeen ekarpen historikoa aztertzeko I. Ikerketa Beka atera dute

**TOLOSA** Berdintasun sailak antolatuta, hilaren bukaera baino lehen aurkeztu beharko dute zirriborroa interesatuek

**HELBURUA** Tolosan emakumezkoen eraginari buruzko datu berriak kaleratzea eta daudenak sakontzea da z



Jende ugari hurbildu zen pasa den igandean Leitzara; Partzuergotik «gustura» azaldu dira. HITZA

## LEITZAKO TALO EGUNA HERRITARREN ARTEAN ERROTUZ DOA

**LEITZA** «Jendea gogotsu eta ilusioarekin» aurkitzen dela azaldu dute antolatzaileek eta «gustura» azaldu dira igandeak emandakoarekin 5



N. URBIZU

**AMAIA GOIKOETXEA** 111 AKADEMIAKO ERAGILEA

«Euskal idazleak egon badaude, baina euskal irakurleak falta dira»

**ALEGIA** 111 Akademiak, euskal literatura zaleen akademiak, 111 kide baino gehiago lortu ditu 7

**I. Azoka Berezia** antolatu du Oria merkatarien elkarteak, iganderako

**VILLABONA** Larunbatean, berriz, elikagaien 13. Azoka Berezia izango da 4

**Euskal Herrian** barrena eginiko txangoen erakusketa, Kultur Etxean

**IBARRA** Pasa den ikasturtean eginiko mendi irteeren argazkiak dira 6



Josebe Iturrioz, Udaleko Berdintasun teknikariak eta Onintza Lasa zinegotziak aurkeztu zuten atzo beka. E. EZBEIZA

## Emakumeen ekarpen historikoa aztertzeke beka bat atera du Udalak

**Kultura** » Irabazleak urtebete izango du lana burutzeko; hilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da lan-proiektua.

### ESTI EZBEIZA

Emakumeek historian zehar Tolosari egin dioten ekarpena aztertzeke asmoz, Udaleko Berdintasun sailak I. Ikerketa Beka aurkeztu du. Egitasmo honekin, «gure herriaren eta ingurunearen garapenean emakumeek arlo ezberdinetan izan duten lekua argitaratu eman» nahi dute. Beka hau eskuratzeko duenak 9.000 euro izango ditu, urtebetez lana garatu ahal izan dezan.

Ekimen honen helburua da emakumeen lana eta presentzia berreskuratzea. Emakumei falta zaizkien erreferenteak lortu eta belaunaldi berriak hutsetik hasi ez daitezke. Halaber, ikerketa lanaren gaia emakumeek iraganeko eta gaurko historian bete duten papera da.

### Bekaren ezaugarriak

Antolatzaileek, ahalik eta jende gehiena animatzeko asmoz, hainbat erraztasun ematea erabaki dute. Honenbestez, edozein arlo edo ikuspuntutatik garatu ahal izango da ikerketa: historia, antropologia, ekonomia, artea... Gainera, pertsonak banaka edo taldeka aurkez daitezke. Hau da, ez du zertan batek bakarrik egin behar azterketa, talde batekin egin dezake. Parte hartzeke, eskabide orria aurkeztu behar da behar bezala

### » BEKAREN NONDIK NORAKOAK

- **Izena.** Emakumeek Tolosako historiari egindako ekarpena.
- **Ikerketa gaia.** Emakumeek iraganeko edo gaurko historian bete duten papera.
- **Diziplina.** Edozein (historia, artea, filosofia, soziologia...).
- **Parte hartzeke.** Eskabide orria aurkeztu behar bezala beteta. Ondoren lan-proiektua aurkeztu.
- **Memoriaren xehetasuna.** 10-15 orritakoa izango da. Proiektuaren izenburua, deskribapena, helburuak, ikerketaren interesa, metodologia eta lan-plana zehaztu beharko dira bertan.
- **Memoria aurkezteko azken eguna.** Irailaren 30a baino lehen, Tolosako Udai Erregistrora eraman behar da izenburu honekin: Ikerketa beka. Emakumeek Tolosako historiari egin dioten ekarpena.
- **Ikerketaren subjektua.** Bakarka nahiz taldean gauza daitezke ikerketa. Memoriari erantsi beharko

beteta. Hau Berdintasun sailaren blegoan eskura daitezke ([www.berdintasunatosakoudala.blogspot.com](http://www.berdintasunatosakoudala.blogspot.com)).

Interesatuak hilaren 30a baino lehen memoria aurkeztu beharko dute. Hau, gehienez 15 orritakoa izango da. Txosten honetan egitasmoaren izenburua, deskribapena, helburuak, ikerketaren interesa, metodologia eta lan plangintza zehaztu beharko dira. Beka noren-tzat izango den ebazteko epaimahai bat egingo da. Bertan izango dira Teresa del Valle, Antropologia Katedraduna eta genero gaietan erreferente dena, baita Miren

zaizkio parte hartu behar dutenen curriculumak.

- **Egitasmoaren finantzaketa.** Bekaren kopuru ekonomikoa 9.000 eurokoa da. Hau hiru epetan banatuko da.
- **Hizkuntza.** Euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izango da proiektua. Gainera, 2.000 euro gehiago emango zaizkio egileari beste hizkuntzara itzul dezan.
- **Epaimahaia.** Proiektua hautatu duen epaimahaia ondorengoek osatuko dute: Teresa del Valle, Miren Llona, Onintza Lasa eta Josebe Iturriozek.
- **Argitaratzea.** Lanek argitaratu gabeak izan beharko dute. Sailak lan saritua argitaratzeko eskubidea izango du.
- **Hautatu gabea.** Beka jaso ez duten proiektuak 2009ko uztailaren 1etik aurrera jaso ahal izango dira Tolosako Udaleko Berdintasun Sailean.

Llona ere. Hau, Historia Garaikideko Irakaslea da EHUn eta Emakumeen Buruzko Dokumentazio eta Ikasketu Zentruaren arduraduna da. Hauekin batera epaimahaietan ariko dira Onintza Lasa Berdintasun zinegotzia eta Josebe Iturrioz Berdintasun teknikaria. Ikerketa euskaraz nahiz gaztelaniaz gauzatu ahal izango da. Hala, ikertzaileak 2.000 euro gehiago izango ditu itzulpena egin ahal izateko.

Tolosako Udalak antolatzen badu ere, beka hau irekia da eta Onintza Lasa zinegotziak agertu bezala, «erorka honetan, kalita-

tezko parte-hartze zabalak izan nahi dugu, guztiak eta guztiak artean aberastu behar dugulako gure gizarteari buruz, eta zehazki, Tolosari buruz dakiguna». Behin eta berriz, atzo egindako agerraldian azpimarratu zuten antolatzaileek, kalitatezko ikerketa bat lortu nahi dutela, eta ez edozein modukoa.

Lanak argitaratu gabea izan behar du. Berdintasun sailak bere gain izango du saritutako lana argitaratzeko eskubidea, osorik nahiz zati bat. Bestalde, aurkeztutako proiektua modu baikorren eze bada baloratzen, beka eman gabe utzi ahal izango du Udalak.

### Egitasmoaren arrazoiak

Beka honen helburua da Tolosako emakumezkoen eraginari buruzko datu berriak kaleratzea edo lehendik daudenak gehiago sakontzea. Antolatzaileek azalduko auzaren arabera, «historian zehar, gehienetan, emakumezkoen ekarpenak ez dira jaso eta horregatik, emakumeen lana eta haiek izan duten eragina bizitza sozialean, ekonomikoan eta politikoan ezkurtuan egon dira gaurdaino. Hori guztiari erantsi behar zaio, bestalde, kalitatezko ikerketaren alde egin nahi dela. Izan ere, askotan emakumeekin zerikusia daukaten gaiak ez zaie behar adinako garrantzia ematen», gaineratu zuten. Horregatik, beka honekin Tolosako herriari emakumeek egindako ekarpenei buruzko kalitatezko ikerketa bat sustatu nahi da.

### Berdintasunaren bila, beste pauso bat

Aurten, lehendabiziko aldiz Berdintasunerako zinegotziak kargua sortu du Tolosan. Hortik hasita, hainbat pauso eta ekintza bultzatu dituzte Tolosako Udaketik, emakume eta gizezkoen arteko berdintasuna lortzeko asmoz.

Gauzatutako ekintzen artean, Berdintasunerako lehen ordenantza onartu zuten apirillean. Udalen ordenantza honen bitartez, Tolosako Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa jakinarazteaz gain, gainerako instituzio publiko, herri-erakunde nahiz erakunde pribatu desberdinek ordenantza horretan jasotzen dena abian jartzeko neurriak har ditzatela erlortu nahi da, elkarren arteko lankidetzaren bidez. Udalak Osoko Bilkuran onarpena eman ostean, Berdintasuneko teknikariak aurkeztu zitzaizkien ordenantza, geroago, oinarritzat hartuta eredu bat garatzeko.

Tokiko gobernuek arlo honetan esku hartzeko erabiltzen duen oinarritzeko araua da Ordenantza. Berdintasunaren inguruko gaiari dagokion garrantzia eman, eta bete beharreko arau-maila ematen diona. Ordenantza hori Berdintasunari buruzko Legean dago oinarrituta. Lege horrek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ezartzen du, lehenetasun gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko botere eta administrazio guztietan.

## Laburrak

### Alpino Uzturrerekin Anie mendira asteburu honetan

**KIROLAK** » Asteburu honetarako Pirinioetara irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak. Larunbatean 07:00etan Gorosabeletik abiatu eta Otsogorrigaina (1.922) eta Kartxela (1.982) mendiak igoko dituzte. Isaban lo egin ondoren, igandean Anie (2.507 metro) mendia igo, Lescun herrira jaitsi eta Tolosara itzuliko dira. Izen ematea elkartean bertan edo 943 65 27 89 telefono zenbakira deituta egin daitezke.

### Bi irteera antolatuta ditu Oargik hil honetarako

**KIROLAK** » Oargi mendi elkarteak bi irteera antolatuta ditu hilabete honetarako. Asteburu honetan, Aragoin Pineta bailarara joango dira. Bertan arroien jaitsiera egingo dute. Ostiral arratsaldean abiatuko dira Tolosatik. Interesatuak 125 euro inguru ordaindu beharko dituzte. Bigarren irteera hilaren 19tik 21era bitartean izango da. Panticosara joango dira eta inguruko Midi d'ossau (2.884 metro) eta Anayet (2.545 metro) mendiak igoko dituzte. Interesatuak izena ondorengo telefono zenbakian eman dezakete: 637 83 03 80.

## Telefonoak

### Larrialdia. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leiztan.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leiztaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalaitzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Musika** » Eskualdeko nahiz Euskal Herriko taldeak ariko dira zuzenean, 'Bonberenea Sutan' izeneko ekimenean.

# Hamabi kontzertuz osaturiko jaialdia Bonberenean, etzi eta larunbatean

## INIGO TERRADILLOS

Inoiz baino indar handiagoarekin dator kigu Bonberenearen eskaintza; bertako suaren garrek ez dute, ez, itzaltzeko inolako asmorik azken urteetan erakutsi duten moduan, eta asteburu honetarako antolatatu duten jaialdiarekin sutan jarriko da Bonberenea. Hain zuzen ere, *Bonberenea Sutan* izena eman diote gaztetxeko kideek asteburuko kontzertu sortari, eta hau, era berean, aurrera begira duten proiektuaren baitan kokatzen da.

Eskualdeko nahiz Euskal Herriko hamabi talde igoko dira taula gainera. Hauek 20:00etatik aurrera hasiko dira zuzenekoekin, eta goizeko ordu txikitara arte musikalak ez du etenik izango. Borrokan, Kerobia, Zea Mays, Sorkun eta Vicepresidentes eta Anestesia ariko dira etzi gaztetxearen kanpoaldean, futbol zelaian jarriko duten eskenatokia, eta DJ Makala etxearen barruan ariko da. Larunbatean, berriz, Willis Drummond, Inoren ero ni, Lisabö, Deabruak Teilatuetan eta Delorean taldeak izango dira futbol zelaian ariko direnak, eta Bad Sound System etxearen barruan.

Kontzertuetarako txartelak Tolosako Orbel, Denak eta Eguzki tabernatan eskuratu ahalko dira 12



Ezker-eskuin eta goitik behera, etzi Bonberenean ariko direnak: Borrokan, Kerobia, Zea Mays, Sorkun eta Vicepresidentes, Anestesia eta Makala DJ. HITZA



Ezker-eskuin eta goitik behera larunbatean ariko direnak: Willis Drummond, Inoren ero ni, Lisabö, Deabruak teilatuetan, Delorean eta Bad Sound System. HITZA

## » DATUAK

- **Jaialdia.** 'Bonberenea Sutan'.
- **Egunak eta ordua.** Etzi eta larunbatean, 20:00etatik aurrera.
- **Taldeak.** Borrokan, Kerobia, Zea Mays, Sorkun eta Vicepresidentes, Anestesia, DJ Makala, Willis Drummond, Inoren ero ni, Lisabö, Deabruak Teilatuetan, Delorean eta Bad Sound System.
- **Txartelak.** Salgai 12 eurotan, Orbel, Denak eta Eguzki tabernatan.

euroren truke. Dena dela, ekitaldi nagusia gauetan izango den arren, larunbatean, 18:00etatik aurrera hasiko dira Bonbereneako giroa jartzen, Mulambo perkusio taldea eta Bonberenea Txarangako kideak Tolosako kaleetan zehar ibiliko baitira euren doinuak zabalduz.

## Jaialdi bat baino gehiago

*Bonberenea Sutan* Bonberenearen proiektu kolektiboa bermatuko duen ekinaldi berriaren hasiera bezala definitzen dute. «Egoitzaren birkokapenak bultzaturik, ekinaldi honek Bonberenea zentzu guztietan berokupatzea ekarriko du, funtzionamenduan bide berriak irekiko dira, esperientzia berriak bultzatu, Tolosako taldeekin harremanak indartu...».

# «'Piromanoen' lana dago guztiaren atzean»

**PATXI MUÑOA** » Bonbereneako kidea

## I. TERRADILLOS

*Sormenaren suhiltzaileen aurrean izan piromano eta zabaldu sua.* Hori da *Bonberenea Sutan* ekimenaren lema. Jaialdiaren inguruan hitz egin du Patxi Muñoa (Tolosa, 1976) Bonbereneako kidea, eta gaztetxearen proiektu berriaren nondik norakoak azaldu ditu.

**Nola sortu zen jaialdia antolatzearen ideia?**

Idea orain dela urtebete inguru sortu zen. Guztiok buruan genuen horrelako zerbait egitearena.

**Helburu jakin bat al du?**

Jaialdi honekin proiektu berri bati hasiera emango diogu. Kontua da, Bonberenearen birkokapenaren negoziazio prozesua martxan dagoela, eta guk Udalarik Bonberenatik ateratzeko baldintzak zeintzuk diren zehaztuak dizkiogu. Esaterako, etxearen aldeketa egongo da, baina birokupazio batekin batera. Eta etxe horretan herriko talde desberdinek ere lekua izango dute, orain arte bezala irekia izango baita. Beraz, prozesu horretan sortutako ideia izan da *Bonberenea Sutan*, elkarte, talde edota erakunde desberdinek gure ideia eta proiektu



H. BELLOSO

tuekin bat egiteko modu bezala, alegia. Eta hor kokatzen da gure lema: *Sormenaren suhiltzaileen aurrean izan piromano eta zabaldu sua*. Kasu horretan *piromanoak* Bonberenearen inguruan lanean eta laguntzen ari direnak dira.

**Ez da erraza izango horrelako ekitaldia antolatzea.** 125 lagun inguru ari gara guztia antolatzen aritu direnak eta egunean bertan eskenatokiarekin, barran

eta abar egongo direnak sartu behar dira. *Piromanoak* guztiak.

**Hainbeste talde elkartzek ere izango du lana, ezta?**

Bai, eta horiek ere *piromanoak* dira esan behar da. Guk gonbidapena luzatu genien eta inongo arazorik ez zuten jarri hura onartzeko orduan, beraiek ere Bonberenearen parte sentitzen baitira. Izan ere, kontzertuetan edo diskoen grabaketetan, inoiz erabili izan dute Bonberenea.

**Zer moduzko harrera izango duela jaialdiak espero duzue?**

Gutxienez *piromanoen* aldetik arazorik gabe joango dela badakigu. Gero eguraldiaren faktorea dago, eta hori ez da inoiz jakiten. Oraingoz behintzat erritmo onean ari dira saltzen txartelak. Hori bai, jendeari esango nioke azkar ibili dadila ez baitira asko geratzen.


**Jendearen laguntza beharrezkoa izango da horrelako ekitaldi bat antolatzeko orduan.**

Bai, eta hori eskertu beharra dago.

Batetik, kontzertuez gozatzera etorriko direnei, eta gainera, eskualdetik ezezik Euskal Herriko zonalde desberdinetatik etorriko dira, eta baita mugaz bestaldetik ere, Katalunia, Murtzi, Burgos, Castellon bezalako lekuetatik, alegia. Eta eskertzeko da, era berea, musika taldeek musutruk egingo duten lana.

**Horrelako beste ekitaldirik buruan?**

Gehiago izango dira ekimenaren baitan, baina oraindik ez dakigu.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Elikagaien 13. Azoka Berezia, larunbatean

**Villabona** » Irrintzi elkarteak antolatzen du; 30 postutik gora izango dira Errebote plazan, mota guztietako produktuekin.

I. GARCIA

Villabonako Irrintzi elkarteak, bere 27. urteurrena iristear dagoela, berriro ere antolatu du Elikagaien Azoka Berezia. Aurtengoa 13.a izango da eta hilaren 13an egingo da, larunbatean, 09:00etatik hasita Errebote plazan. 30 postutik gora izango dira bertan eta ohi bezala mota guztietako produktuak izango dira bertan: heste-beteak, ardoak, ezfia, gozoak, fruitak, kontserbak, gaztak, sagardoa, txakolina, arraina...

Azokako hiru postu onenek sariak eskuratuko dituzte, 180 euro, 120 euro eta 90 euro, hain zuzen, eta oroigarria ere, gutzia Udaleren eskutik. Azokaren ondoren postua jarriko duten guztiak bazkaltzera



Irrintziko zenbait bazkide Elikagaien Azoka Berezia antolatzen. I. GARCIA

gonbidatzen dituzte Irrintzikoek. Bertara ere gonbidatzen dituzte urtean zehar antolatzen dituzten ekintzak babesten dituzten enpresetako ordezkariak.

### Isats Gisatuaren Lehiaketa

Elikagaien azokarekin batera, aurtenean ere elkartearen arteko Isats Gisatuaren Lehiaketa antolatu dute Irrintzikoek. Aitzondo bailarako

zortzi elkarte ariko dira lehia: Villabonatik Irrintzi elkarte bera, Behar-Zana eta Zumbeltz; Amasatik Uxo-Toki; Zizurkiletik Urkamendi eta Ibai-Ertz; eta Asteasutik Aitzondo eta Santamaña. Antolatzailerak partaideei isatsa ematen diete eta diru kopuru bat beste osagaiak erosteko. Iazko lehiaketa Irrintzi elkarteak Jose Luis Goyak irabazi zuen.

Aurtengo epaimahaia ondorengo sukaldariek osatzen dute: Iñaki etxeberria (Zuloaga Txiki), Jokin Zabala (Iturrigoxo), Mikel Zuaznabar (Sausta) eta Jorge Costa (Txapelduna taberna).

### Elkarteko bazkaria

Bestalde, Irrintzi elkarteak urteurrena ospatzeko afaria antolatu dute irailaren 20rako. Elkartearen bertan dute aukera nahi duten bazkideek izena emateko. 19:00etan bilduko dira elkartearen aurrean poteoa egiteko eta ondoren afaria egingo dute 20:30ak aldera.

## Laburrak

### Euskarari lotutako diru laguntzak herritarrentzat

**ANOETA** » Udalak diru laguntzak emango ditu udako ikastaroetan euskara ikasten ari diren herritarrentzat eta UEUko udako ikastaroetan parte hartu duten herritarrentzat. Eskeraerak aurkezteko epea irailaren 15ean bukatzen da.

### Ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

**ANOETA** » Matrikula irekita dago jada umeentzako kultur ikastaroetan izena emateko. Ondorengo aukerak daude: euskal dantza, pilota, antzerkia, xakea, marrazketa eta plastika. Orduetegi eta prezioei buruzko informazioa udal bulegoetan edo kiroldegian jaso daiteke, eta interesa dutenek matrikula orria bete behar dute hilaren 19a baino lehen. Aurten euskal dantzetako ikastaroa ere antolatu da 15 urtetik aurrerakoentzat, ostiralean 19:45etik 21:15era kiroldegian. Prezioa 70,11 eurotako izango da. Izena eman nahi dutenek aukera dute hilaren 19a arte, udal bulegoetan edo kiroldegian.

### Euskal Jairako arduren zerrenda, Itzuli tabernan

**ANOETA** » Urriaren 12rako Euskal Jaia antolatzen ari dira Anoetan. Dagoeneko prestaketak aurrera doaz eta, besteak beste, arduren zerrenda prestatu dute antolatzaileek. Egun horretan lagundu nahi dutenek zerrendak Itzuli tabernan dituzte izena emateko. Bestalde, Euskal Jaian egingo den bazkariako izena emateko aukera dago urriaren 5era arte. 20 euro ordaindu beharko da, ikasle eta langabetuek 15 euro eta 8 urtez beherakoei 10 euro.

### Sanmiel jaiak, ohi bezala, bi asteburutan ospatuko dira

**IRURA** » Aurten ere Irurako San Migel festak bi asteburutan banatuko dira. Alde batetik hilaren 19, 20 eta 21ean izango dira ekitaldiak, eta bestetik hilaren 26, 27, 28 eta 29an. Bestalde, jubilatuen eguna, jaien ondorengo igandean izan ohi dena, aurten Kilometroko izango direnez, urriaren 12an egingo da.

## Oria merkatarien elkarteak I. Azoka Berezia antolatu du plazan igande honetarako

**Villabona** » Dendak kalera ateratzea da antolatzaileren helburua; 20 postu inguru izango dira eta 10:00etatik 14:00etara iraungo du.

I. GARCIA

Oria merkatarien elkarteak I. Azoka Berezia antolatu du. Igande honetan izango da Errebote plazan eta 10:00etatik 14:00etara iraungo du. Bertan denetarik aurkitu ahal izango da: arropak, osagarriak, oinetakoak, landareak, loreak, ogia, lurrinak eta barazkiak. Horrez gain taberna bat izango da pintxoak eta sagardo dastatzeko. Hauek ere izango dute beraientzako jolasak eta horretarako bi begirale izango dira bertan.

Mari Jose Alustiza Oria elkarte-ko lehendakariordeak azaldu du-



Mari Jose Alustiza azokaren kartelarekin. I. GARCIA

nez, «gure asmoa da dendak kalera ateratzea. Dendetan ditugun produktuak aterako ditugu. Mota askotako produktuak izango dira eta

gure ustez nahiko polita eta interesgarria izango da azoka». 20 postu inguru izango dira Oria elkarte-ko «ilusioz» antolatu duten azo-

kan. «Espero dugu jendearen erantzuna ona izatea», azaldu du Alustizak. Gainera, zenbait produktu merkeago egongo dira.

argazki lehiaketa

**HITZA** udako argazki lehiaketa

bidali opor hauetako argazkiak!



Sari nagusia

2. saria

3. saria



Beti Alai jatetxea



Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako Beti Alai jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

Ibarrako Azoka dendak eskaintako saski berezia.

### ARGAZKIAK NORA BIDALI

• P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
• Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA  
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!



Txoko Tabernak, Gaztañaga Tabernak, Sagasti Jatetxeak, Musunzar Jatetxeak, Beatrizenea Tabernak eta Peritza Tabernak taloarekin egindako plateren erakusketan parte hartu zuten. HITZA



Haurrak esku lanetan eta abereekin gozatzeko aukera izan zuten Taloaren Egunean. Aurrerako dantzarien emanaldia eta herri kirol erakustaldiak eman zioten amaiera jaiari. HITZA

## Taloaren Eguna finkatze bidean

**Leitza** » Antolatzaile lanetan aritu den Plazaola Partzuergoa «gustura» agertu da pasa den igandean bildutako jendearekin.

### ASIER IMAZ

Taloaren Eguna usadio bilakatze-ko bidean aurkitzen da Leitza. Lehen urratsak ematen ari den ekimena izan arren, «jendea gogotsu eta ilusioarekin aurkitzen da, urtetik urtera egutegian finkatzen

baitoa». Antolatzaileak, partaideak eta herritarrek «gustura» agertu dira iragan igandeko Taloaren Egunarekin.

Etorbizuna lanaren esku baldin badago, lana gogoaren esku eta hori behintzat ez da falta.

### Bertakoak eta kanpokoak

Billabonatarrek eta Saralegitarrak aritu ziren igandean taloak egiten. Ohiko taloez gain, berezitasunak ere aurkeztu zituzten «gula, ondo, antxoa eta abarrez» osaturiko taloak plazaratuz.

Haurrak, «75 bat inguru», talo tailerretan aritu zirengoizean. Ondoren, Saralegitarren azientza ikusteko aukera ere izan zuten.

Herri kirol eta dantzariak ez ziren atzera geratu euren erakustal-

dietan, gerturatu ziren herritar eta atzerritarren plazerrerako. Antolatze lanetan ibili zen Plazaola Partzuergoaren esanetan, «oso giro ona edukiguenen igandean. Bertakoak gustura agertu ziren eta hori da garrantzitsuena. Horretaz gain, gure helburuen artean kanpotarrak Leitza erakartzea aurkitzen da, bertakoa kanpoan ezagutarazteko. Iruñatik, Tolosaldeetik, Madriletik eta Tarragonatik jendea hurbildu zen eta ondorioz gustura

aurkitzen gara». Etorbizunari begira berriz, jendearen esanak kontutan hartzeko asmoa azaldu dute antolatzaileek; «jatetxeek euren platerak aurkezteko orduan lan izugarria egin dute eta hurrengo urteari begira, jendeak aipatu duen zerbait aldatzen saiatuko gara: plateren erakusketaz gain dastatzeko aukera eskatu du jendeak. Jatetxeekin aztertuko dugu proposamen hau eta ea posible den».



BEHENAFARROA : ELETA 2008/04/20  
EUSKAL HERRIAN ZEHAR MENDI IRTEERA



ZUBEROA : HOLTZARTEKO ZUBIA 2007/10  
EUSKAL HERRIAN ZEHAR MENDI IRTEERA

Pasa den ikasturtean egindako zazpi mendi irteeretako argazkiak biltzen dituzten 26 panel jarri dituzte ikusgai Ibarra Kultur Etxean. R. CALVO

## Euskal Herrian zehar eginiko mendi irteeren irudiak bildu dituzte

**Ibarra** » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju taldeek antolatutako mendi irteeren erakusketa hilaren 19ra arte egongo da zabalik.

### REBEKA CALVO

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan barna ibili dira azken hilabeteetan Ibarra *Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatuz* lelopean. Ekimena Bai Euskal Herriari tal-

dekoek bultzatuta hasi zen, taldea Haitzetan Rajuekoekin hitz egin eta berehala hasi ziren txangoak antolatzen.

Horiek horrela, Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju taldeen ekimenez mendi irteerak, zazpi, arestian esan bezala, egin dituzte eta bertan jasotako irudiak jarri dituzte ikusgai orain herriko Kultur Etxean hilaren 19a bitarte. Erakusketa pasa den astelehenean ireki zuten eta bertan irteerarako hainbat argazki ikus daitezke atondu-

tako 26 paneletan banatuta. Irteeren xedea zazpi lurraldetara joan eta Euskal Herria ezagutzuz gizar-tean lurraldetasuna sustatzea zen eta txangoek izandako erantzuna ikusita badirudi lortu dutela. Irteera guztietan ez zen jende kopuru bera joan, baina hogeit bat lagun biltzera ere iritsi ziren zenbait ibilbidetan.

Era berean, ekimeneko antolatzaileek azaldutakoaren arabera, adin desberdinetako jendea elkar-tu zen txangoeta eta horrela euren

beste helburuetako bat betetzea lortu zuten, herri giroa bultzatzearena, hain zuzen ere.

### Lapurditik Gipuzkoara arte

Orain urtebete-edo egin zuten lehen irteera, Lapurdiren txanda zen, eta Getaria eta Hendaia arteko bidea egin zuten. Hurrengo mendi irteera iazko urrian izan zen, Zuberoakoa, hain justu, eta Holtzar-teko Zubira joan zen goizean Ibarrrako plazan bildutako taldea.

Hurrengo hilabetean, azaroan,

Nafarroa Garaiko Bardeetan izan ziren eta pasa den otsailan berri-z, Bizkaia bisitatu zuten, Karrantzatik Balmasedako bidea eginaz. Martxoan Arabako Toloño mendira igo ziren eta apirilaren berri-z, Behe Nafarroako Eletan izan ziren. Azken txangoa pasa den maiatzean egin zuten, Gipuzkoaren ueña zen eta Aralarren izan ziren. Azken irteera honetako bi panel besterik ez dituzte jarri, baina gaituztekoetan, lurraldeko lau panel jarri dituzte.

Mendi irteeren antolatzaileek esan dutenez ikasturte honetan ere ekimenarekin jarraitzeko asmoa dute eta datozen asteetan aurkeztuko dituzte hurrengo hilabeteetarako prestatu dituzten irteera desberdinak.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Irakaslea.** Lazkaoko ingeleseko akademiarako irakaslea behar dugu. Bidali Curriculum Vitae [hizkuntzaeskola@gmail.com](mailto:hizkuntzaeskola@gmail.com) helbidera.

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako, egunean bi ordutarako, persona bat behar da. Deitu 628 163 722 zenbakira.

### SALGAI

■ **Peugot Partner.** Peugeot Partner auto diesela salgai. Egoera onean. Deitu 649 510 941 zenbakira.

### ESKOLAK

■ **Gitarra eskolak.** Gitarra eskolak bakarka edo taldean. Deitu 630 925 997 telefono zenbakira.

## Beka eta ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute Zizurkilen

### ERREDAKZIOA

Zizurkileko Udalak *Zizurkilen Barena* beka atera du hizkuntza-ondarea eta ondare horren etnografi arloa jasotzeko. Datuak urriaren 24a baino lehen bidali behar dira Udaleria. Bestalde, ikastaroetan izena emateko epea hilaren 25an bukatuko da. Haurrentzako zein helduentzako ikastaro desberdinak antolatuta dituzte eta ikastaro motzak ere egongo dira; ukenduen eta automakilaia eta esku zein oin estetika, zehazki.



## Jubilatuaren bazkaria Atxulondon

**ZIZURKIL** » Zizurkilgo jaietako egun handia zen atzokoan, nahiz eta astearteak izaki herritar askok lanera joan behar izan zuten, eguna jubilatuentzako utziaz. Eguna meza nagusiarekin hasi zen eta ondoren jubila-

tuek bazkaria eta toka eta igelaren jokoak izan zituzten. Herri kirolak ere izan ziren arratsaldean eta ondoren, gauean, *Aupa Etxebeste* filma proiektatu zuten Joxe Arregi plazan. I. GARCIA

**E Elkarrizketa**

**AMAIA GOIKOETXEA** 111 Akademiako eragilea

# «Euskal idazleak badaude, baina euskal irakurleak falta dira»

**Kultura** 111 Akademia euskal literaturzaleen lehenengo akademia da eta ia urte eta erdiko bizitzarekin bere lehen erronka bete du: 111 akademikide izatea; orain, Euskal Herrian zabaltzea dute helburu.

**NEREA URBIZU**

111 Akademiak bere lehen erronka lortu du, izan ere, 111 akademikide baino gehiago lortu ditu (gaurko egunez 113). Euskal literaturzaleen lehenengo akademia bide horretan jarraituko du, euskal irakurle gehiago lortuz, hain zuzen. Amaia Goikoetxea (Alegia, 1983) 111 Akademiako eragilea da beste gauza askoren artean, eta akademiaren hainbat xehetasun eman ditu.

**Nondik sortu zen literaturzaleen akademia?**

Literaturzaleen akademia 2007ko apirilaz geroztik dago. Dena 1996etik dator, orduan literatur sari bat jarri zen martxan. Larramendi Bazkunak sortu zuen sari hau eta horren ezaugarri garrantzitsuena da, irakurle arruntak direla epaileak. Hasiera batean, inguruko irakurle talde bat biltzen zen eta urtean liburu ale kopuru bat irakur zezatela eskatzen zitzairen: liburu euskaldun batek egina eta euskaraz egindakoa izan behar zen. Urtea bukatzean, irakurleari saria zein liburu berezi zuen esateko eskatzen zitzaion. 1998an Beterriko liburu aldizkariaren lehen alea aterata zen.

**2000. urtean beste pauso bat eman zen.**

Epaimahai orokorra osatu zen, eta irakurleak ziren.

**Baina urte batzuen ondoren...**

Arrazoi diferenteak zirela medio, 2007an dagoeneko, epaimahai

hori desegiten hasi zen. Larramendi Bazkunak beste pauso bat ematea beharrezkoa zela adierazi zuen: uztea ala handitzea. Handitzearekin akademia sortu zen.

**111 Akademia zer da?**

Zeregin nagusia hasierako Beterriko liburuaren ohorezko literatura aipamen hori urtero hautatu eta ematea da, irakurleak dira epaileak. Baina horrez gain, Euskal Herri mailako irakurleen arteko sare bat bezala sortu nahi zen: harreman batzuk, ekintza batzuk... Hau da, lan harreman bat sortu Euskal Herri osoko irakurleen artean.

**111 Akademiak lortu du bere lehen erronka: 111 akademikidera iristea. Eta orain?**

Lehen epaimahaia osatzen zuen gehiengo handia Beterrikoa zen. Orain esparrua zabaltzeko egin nahi da, Euskal Herri osora. Gutzienek 111 kopurura ailegatzea nahi genuen. Kopuru hori lortu dugu eta horretan jarraituko dugu. 111 akademikide titular izango dira, eta ondorengoak ordezkokoak izango dira.

**Nola espero duzue zabaltzea?**

Orain arte hobekien funtzionatu duten bideak Euskal Herriko liburutegi guztietara bidaltzeko eskuorria eta ahoz-ahozkoa izan dira.

**Lan hori errazteko eta akademiari kolorea aldatzeko egitura berri bat egingo duzue.**

Asmoa da bi batzorde sortzea akademikideen artean: bata da Beterriko Liburuaren literatur aldizkariako Erredakzio Batzordea eta bestea Batzorde eragilea. Azken honek erabakiko ditu, 111 Akademiak saria eta iritzirik bidaltzeaz gain, beste zein ekintza egin daitezkeen (solasaldiak, literatur jardunaldiak, hitzaldiak...). Guztia lehen aipaturako irakurleen sare hori indartzeko, ideiak botatz, eta abar. Erredakzio Batzordea aldizkariaren zentratuko da, edukinetan, hartu beharreko norabidean... Berriketa barreak aurrerago emango dira.

**Internet tresna oso baliagarria izango da zuentzat.**



N.U.

Bai. Irakurleen arteko harreman hori izateko oso baliagarria da. Bi batzorde hauek gehienbat internet bidez egingo dute lan. Lan egiteko modu hau webgunearen bitartez egingo dute: [www.111akademia.com](http://www.111akademia.com)-en bitartez, hain zuzen.

**Akademiako kide denak zer egingo du?**

Baldintza hau da: aurten, 2008an euskaraz euskal idazle batek argi-

taratutako liburuak irakurtzea, gutxienez 2-3. Edozein generokoa izan daiteke. Urtea bukatzean irakurlearen ustez urte horretan saria merezi duen liburuaren bozkatuko du, beti ere nahi izanez gero, ez da derrigorrez bozka eman beharrik. Irakurle arruntak ditugu, ez kritikakoak, ez da mailarik eman behar ezertan. Hori bilatzen dugu, irakurle arrunta izatea. Beraz, ez da

**» DI-DABATEAN**

- **Liburu bat.** *Gauza txikien liburu*a (Pako Aristi).
- **Denbora librean.** Pianoa eta irakurketa.
- **Idazle bat.** Ramon Saizarbitoria.
- **Zertarako irakurri?** Gozatzeko.
- **Zein liburu gomendatu?** *Mandariaren gerra* (J. Basterretxea).

ezere berezirik behar. [www.111akademia.com](http://www.111akademia.com)-en informazioa eta xehetasunak aurkituko ditu ([akademia@111akademia.com](mailto:akademia@111akademia.com)). Webgunean liburuaren zerrenda osatzen goaz, eguneratzen. Akademiakide bakoitzari ere bidaltzen zaio: zerrenda hau lagungarria da.

**Webgunean ere akademiakide ez den irakurle horrentzat informazio erabilgarria izango da, ezta?**

Webguneak bi helburu nagusi dauzka: akademiakide ez den horrentzako, alegia, euskaraz irakur-

**Irakurle arruntak dira akademiakoak, ez da kritikoa izan beharrik kide izateko, ia kontrakoa**

tzen duen edozeinentzako atari izatea (literaturari buruzko albisteak, informazioa, nobedadeak, Beterriko aldizkaria formato digitala...). Webgunearen beste zerregina-edo, 111 Akademiako akademikideentzako lantresna izatea da: hau pribatua da, haien artekoa, alegia. Batzordeen lana Internet bidez egin ahal izango da.

**Zein behar ikusi da 1996. urtean hasita?**

Hasieratik ikusi den beharra izan da irakurleari protagonismo gehiago eman behar zaiola, ez zaiola hitza eman inoiz. Iritzia emateko aukera hori eta euskal literaturgintzan paper aktiboago bat jokatzeko bidea eman behar zaiola.

**Euskaraz irakurtzen al da?**

Ez, ez daude euskal irakurle asko. Jende irakurle horren bila joatean, sorpresa asko eraman ditut. Euskaldun petoak direnak, baina irakurtzeko garaian, berriz, ez. Eta aukera irakurtzeko badago: euskal idazleak badaude, baina euskal irakurleak falta dira. Belaunaldi batzuk ez dute euskaraz gainera inoiz irakurri, heziketarengatik, eta hori asko nabari da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldecohitzza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitzza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

■ **Anoeta.** Aulas Kutxak antolatuta, *Urteen bakardadea, aholkuak eta prebentzioa* hitzaldia izango da Alkartasuna biltokian. Hizlaria Sebas Garcariena izango da eta 18:30ean izango da emanaldia.

### Kultur Astea

■ **Tolosa.** Extremadurako Kultur Astea: 19:30ean La Jara elkartearen hitzaldi-erakustaldia edertasun tratamenduz Leo Corriols Gil estetizienaren eskutik.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Aitzol Euskaltegiak euskararen alde lan egin nahi duten, eta astean ordubetz mintzalaguna ekimenean parte hartu nahi duten jendea behar du: deitu 60561 21 25 zenbakira, edo idatzi *mintzalaguna@euskalerra.org* helbidera.

■ **Tolosa.** Hilaren 13 eta 14rako, Pirinioetara mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturrek, Otsogorrigaina (1.922 m), Kartxela (1.982 m) eta Anie (2.507 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen.

■ **Tolosa.** Esperientziaren Eskolarako izen-ematea 943 224143 zenbakian. Helburua adineko pertsonen garapen pertsonala eta ezagutzak zabaltzen laguntzea da.

■ **Alegia.** *Salbuespen egoerari Stop!* Epaietarik ez elkarretaratzea, 20:00etan plazan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Naturaren altxorrak



**SENDA VIVA** ● Maria Jesus Azkue bidaniarrak Arguedas (Nafarroa) bisitatu du aurtengoan. Animaliek beti merezi dute argazkiren bat eta Maria Jesusentzat ostruak izan ziren deigarriena. «Senda Vivan ostruak arraultza ugari jartzen dituzte, begira bestela», azaldu du bidaniarrak.

**ARAGOI** ● Eskualdeko lagun ugari animatu dira aurtengo udako oporraldian Pirinio aldera jo eta bertan egun batzuk igarotzera. Egoitz Bengoetxea billabonatarra, adibide argia. Hauxe azaldu digu argazkia bildaltzearekin batera: «Argazkia Pirinioetan aterata dago, Rencusa-ko aterpe ondoan. Bota xahar hauen azken abentura izan zen.



## A Agurrak



### Urte askoan!

**Oier eta Eñaut.** Gaur 4 urte. Ondo-ondo pasa zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat. Aitaxo eta amatxo.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak